

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Edozein enpresetan, garrantzitsua da elkarlanean arituko garen eta babesten gaituzten elkarteekin bat egitea. Horregatik, Bidelagun proiektuan, zenbait elkarterekin hartu-emanean arituko gara; hala nola, Aspace eta Gureak elkarteekin.

GUREAK: “Ahalmen desgaitasuna duten pertsonen eta, bereziki, Gipuzkoan adimen-desgaitauna dutenei behar bezala egokitutako lan-aukera egonkorrak sortzen eta kudeatzen ditu GUREAK euskal enpresa-taldeak. GUREAK talde sendo eta dibertsifikatua da, merkatu zorrotzetan lan egitean duena eta inguru profesional eta lehiakorrean lanerako inklusioa eskaintzen duena.”



ASPACE: “Aspace Familien Elkarte da, eta bere organo nagusia Batzarra da, Zuzendaritza Batzordeko kideak aukeratzen dituena. Elkartearen helburuak hauek dira: Garun-paralisia eta antzeko asaldurak dituzten pertsonak gizarteratzea ; Kalitatezko arreta, autonomia pertsonala sustatzen duten hainbat zerbitzu eta programaren bidez eta Gizarte-sentsibilizazioa bermatzea”.

Elbarritasun Zerebralaren Elkarte
Asociación de Parálisis Cerebral



Azken finean, aurreko ataletan aipatu dugun moduan, gure enpresak Aniztasun Funtzionala duten pertsonentzat bideraturik dago eta esandako bi elkarteek ere horientzat lan egiten dutela azpimarratu beharra dago. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu bertakoekin lan egitea. Kontuan izanda bertan egiten dituzten egunerokotasuneko ekintzak pertsona horietara egokituta daudela, guk ere jarraipen bat egingo dugu. Baina gure enpresak eskaintzen duen bereizgarritasuna honakoa da: Plazerra, hau da, erabiltzaileak ondo eta gustora egotea eta norberaren ahulguneak hobetzea eta gaitasunak indartzea norberari egokitutako dinamika eta ekintza ezberdinen bitartez.

Tailerra arratsaldez izango denez, bertako langileekin eta erabiltzaileen familiekin harremanetan egongo gara beraien bila joateko eta gure tailerrera ekartzeko. Uneoro kontaktua mantenduko dugu.

Proiektu honetarako **lau profesional**ez baliatuko gara:

- **Maid**er Uzcudun: Antzerkian espezializatua eta Gizarte Hezitzaile gradua duen profesionala.
- **Eider Manso**: “Zumban” espezializatua eta Gizarte Hezitzaile gradua duen profesionala.
- **Nahuel Valdebenito**: Antzerkian Espezializatua eta Pedagogia gradua duen profesionala.
- **Amaia Olariaga**: Dantzan espezializatua eta Psikomotrizitateko gradua duen profesionala.
- **Denen artean**: Bulegorako eta minubuserako gidari postua. Txandakatur arituko gara lanean.

Tailerra prestatu baino lehen taldea ezagutuko dugu eta horren arabera moldatuko dugu. Egun gehienetan antzerki eta dantza tailerrak egongo dira, baina hauen osagarri gisa beste hainbat dinamika burutuko ditugu, hala nola, psikomotritate, eskulanak, sormena lantzea, komunikazio transmisioaren lanketa etab.

Lehen esandako bi elkarteetako erabiltzaileek izango dute lehentasuna, baina hala ere, Aniztasun Funtzionala duen edonork parte hartu dezake.

Arrisku handiena taldea ez sortzea izango litzateke. Horrez gain, pertsonalizatutako tailerra denez, norbait gustura ez sentitzea gertatu daiteke. Horregatik, uneoro baliabideak izan behar ditugu, sortu daitezken gatazketatik irten ahal izateko.